

Antzerki majikoa txikientzat

Behibis taldea aritu da Kultur Etxean ▶ 6



Parkimetroa jarri dute autoa lanerako dutenentzat

TOLOSA ▶ Udalak herenegungo batzarrean hartu du erabakia, denda eta enpresen mesederako

TAO ▶ Tarifa berriak izango dira TAO gunetan, zentimoekin arazoak izaten zirelako ▶ 3

IRURA ▶

Ikastola berria martxan da, festari esker

Garagardo Azoka «mundiala» izan dela diote eratzailleek ▶ 4

IBARRA ▶

109 lan Arrese literatur lehiaketan

«Partaidetza handia» nabarmendu dute ▶ 6

LEITZA ▶

Jose Deuna auzoa gasik gabe geratu da

Matxura izan da ▶ 7



JESUS MARI ORMAETXEA 'URKI' ▶ SEGALARIA

«Aukera gehiago dut Euskadiko Txapelketan»

lazko txapelduna da orendaindarra ▶ 5



ANDONI GOIKOETXEA ▶ SEGALARIA

«Bi finaletan sartzea nuen helburua»

Gazteluarrak lau urte daramatza ▶ 5

TOLOSA ▶

Guarayra taldearen jazz latinoa entzun ahal izango da bihar

Bihar Fronton kafetegian ariko da Julio Andraderen taldea ▶ 2

EZ ERABAKI ETORKIZUNA GU EZAGUTU GABE

ETORKIZUN HAUNDIKO LANBIDEA

- Erresuma Batuko Itzapendegiko III. Maila
- Nazioarteko Pivot-Point Diploma
- Gune Homologatua
- Lan Burtsa, lanpostu indize handia
- Goizeko eta arratsaldeko txandak

San Francisco 39, behea **GUREKIN,**
TOLOSA
Tel. 943 654361 **ZUZENEAN LANERA**
www.centrosbeta.com

Ezagutu Tolosaldea
39 ibilbide seinaleztatuen zehar

12€

TOLOSA ▶ GAU GIRO

Jazz latinoa entzungai Gau Giron, Guarayra taldearekin

Julio Andraderen taldeak kontzertua eskainiko du bihar Fronton kafetegian (23:00)

LEIRE MONTES

Jazz latinoa gustuko duenak aurrez aurre entzuteko aukera izango du bihar. Herrian estraineko izango den taldearekin, gainera. Julio Andraderen Guarayra Sextet-ek kontzertua eskainiko du bihar, 23:00etan, Fronton kafetegian, Gau Giroren baitan.

Guarayra-k lehenengo emaldia izango du biharko Tolosan, baina taldearen arimak, Julio Andradek, badu eskarmenturik herrian. Tolosako entzulegoa «gustuko» duela adierazi dio HITZARI: «Euskal Herrian jendea nahiko hotza da. Baina Tolosakoa harkorragoa da, erantzuten du, atsegina da. Gainera, jendea ohituta dago, musika kultura handia duela nabaritzen da».

Ordu eta erdi inguruko emaldia eskainiko du Guarayra-koek. Baina, gehienetan, «jendearen erantzunaren arabera» iraupena aldatu egiten dela diote: «Entzuleak pozik badaude zu ere gusturago ari zuten zara, naturalki; eta saioa luza daiteke», dio Andradek.



Guarayra taldea —Julio Andrade zutik, kontrabaxuarekin—. HITZA

Bost lagun izango ditu alboan venezuelarrak: Jose Luis Canal bilbotarra eta Daniel Amat kubatarra txandatzan joango dira pianoan eta teklatuan, Diego Alvarez *El negro* venezuelarra perkusioan, Victor de Diego bilbotarra saxoan eta David Gorospe zestoarra baterian. «Maila handiko musikariak dira guztiak. Niretzako plazerra eta ohorea da haien alboan jotzea».

Errepertorio zabala eskainiko dute Guarayra-koek. Jazz latinoa «salsa eta karibeko doinuak baino gehiago» dela aldarrikatuko dute, bide batez: «Uste hori okerra da. Guk hainbat lurraldetako herri-doinuak ekarriko ditugu. Eta, batez ere, Venezuelako musika izango da nagusi: zubia baita, erreferente». Era berean, «kulturak nahastea aberasgarria» dela dio Andradek: «Lurralde desber-

dinak ezagutzea gustatzen zait. Oso aberasgarria iruditzen zait hainbat kulturatatik ikastea. Hazi egiten zaitu barrutik». Sorpresaren bat ere iragarri du: «Ea euskaraz zer edo zer jotzen dugun. Benetan gustatuko litzaidake».

Duela lau urte jaioa

Duela lau urte jaio zen Guarayra taldea, Julio Andraderen ekimenez. «Urteak neramatzan musika munduan, eta konposatutako guztiari bizia eman nahi nion, jendaurrean aurkeztu, eta lagunekin jo. Eta horrela hasi zen proiektua».

Mendi izena du taldeak: «Guarayra Repano Caracaseko mendirik esanguratsuen da, mitikoa. Indarra ematen dit, eta oroitzapen onak ekarri. Horregatik guztiatik jarri nion izen hori taldeari».

«Proiektu ausarta» dela dio Andradek: «Arriskua gustatzen zaigu». Musikariak txandatu egiten dituzte emandiko bakoitzan, eta orain kantak disko batean biltzeko buru belarri ari dira lanean.

GUARAYRA SEXTET ▶ MUSIKARIAK

Musikari askok osatzen dute Guarayra taldea. Emandiko guztiaren ez dute lagun berek jotzen; txandatu egiten dira. Honako hauek dira Tolosan emaldia eskainiko dutenak:

David Gorospe. Bateria. Zestoan jaioa. 15 urte ditu, eta 4 urterekin hasi zuen bere musika ibilbidea. Donostiako Jazz-en bateria ikasten du Paco Diezekin duela sei urtetik, eta teoria eta flauta ikasketak egiten zituen Zarautzen. 1999an Gazte Onenaren Saria irabazi zuen Musikako Nazioarteko Txapelketan. Lau urtez jarraian, gainera, Gipuzkoako etorkizuneko musikari oparoaren saria irabazi du. **Diego Alvarez, 'El negro'.** **Kaxa, conga eta perkusio**

txikia. Caracasen (Venezuela) jaioa. Simon Bolivar bezelako gazte orkestra sinfonikoekin hasi zuen bere ibilbidea. Fundacion Bigott-en perkusio afro-venezuelarra ikasi zuen. Pasion Flamenca konpainia sortu zuen eta Caracaseko Flamenkoko Goi Eskolako musika zuzendaria eta irakaslea da. Espainian bizi da duela bost urtetik; Angel Canalesekin eta Joaquin Cortesekin aritu da. **Victor de Diego. Saxofoia.** Bilbon jaioa. Bertako Musika Kontserbatorioan eta Bartelonako Lizeoan egiten zituen ikasketak. Egun, Musikeneko irakaslea da. 1984an hasi zen jotzen Pork Pie Hat, Infussion eta Quartet Creciente taldeekin, eta sari

asko irabazi, gainera; 1986an, bakarlarri onenaren saria jaso zuen Donostiako jaialdian. Hainbat telebista katetan eta zenbait artista eta antzerki taldearekin ere aritu da. **Jose Luis Canal. Pianoa eta teklatura.** Bilboko Juan Antxieta-n egiten zituen ikasketak. Getxoko eta Donostiako Jazz jaialdian hartu du parte, azken horretan Cartoon Brand taldearekin. *Riff-Rafe* saioan (ETB eta TeleMadrid) musikari izan da. El Consorcio taldearekin aritu da azken hiru urtetan. Egun, teklatu eta konposizio irakaslea da Mr Jam musika eskolan. **Daniel Amat. Pianoa eta teklatura.** Cuban jaioa. Lurralde hartako musikari famatuenetako baten semea

da. Aita bezala, maila handiko musikaria da. Jose Luis Canalekin txandatu egingo da Tolosako emaldian.

Julio Andrade. Kontrabaxua eta baxua. Caracasen jaioa, han egiten zituen ikasketak. 17 urterekin hasi zen herri-musika jotzen. Orkestra Juvenil Gran Mariscal de Ayacucho eta Simon Bolivar orkestra sinfonikoan aritua da. 1995an Espainiara joan zen bizitzera. Egun, Euskal Herrian, Donostian bizi da. Venezuelako eta Espainiako artista handiekin kolaboratu du, eta Euskal Herriko hainbat musikarirekin ere bai: besteak beste, Mikel Urdangarin eta Oskorri taldea. Jazzle jazz eskolan eta Pablo Sarasate kontserbatorioan irakaslea da.

GUTUN@K ▶



Errausketen kontrako Plataformen Koordinadoraren adierazpena

Donostian bigarren errausketgia jartzekoaren aurrean, errausketaren kontrako Plataformen Koordinadorak adierazten du:

1. Eztabaidarako gaia errausketaren kokapena izan izango den ez dela berretsia nahi dugu. Eztabaidagaia hondakin solidoen tratamendurako metodoa da.

2. Kokapen honek, Txingudikoak eta proposatutako beste guztiak bezala, ez du IGOKAA betetzen. Beraz, kokaleku hori legez kanpokoa da.

3. Zenbaiten kontraesanak agerian geratu direla. Ordezkaritza politikoen, udaletxearen egin zaizkien proposamenduen errausketa inoiz gaitzetsi ez dutenek, orain ez dute nahi bere herrietan. Zeintzuk dira beren arrazoiak?

4. Bere kostu handiagatik, ingumenean, herritarren osasunean eta kontsumo politikaren neurrigabeko garapenean duen eraginagatik errausketa ez dela hondakin hiritar solidoak tratatzeko irtenbiderik egokiena.

5. Gaur egun dauden eta Gipuzkoako tamaina baino handiagoan erabileratzen diren beste aukera batzuk aztertu behar direla.

6. Alternatibak, murriztea, berrerabilteza, birziklatzea, biometanizatzea eta konpostatzea dira, bai ekoparkeetan edo beste mota bateko instalakuntzetan. Izan ere, hauek ingurumenarekiko eta osasunarekiko adeitsuagoak dira, eta askoz ere merkeagoak.

7. Errausketak herritarren ingurumenean eta osasunean eragiten dituen kalteak argitzeko eta alternatibei buruz hitzegiteko eta eztabaidatzeko prest gaude bai jendaurrean, prentsan idatzian, irrartian edo telebistan.

Zubietan, 2004ko uztailaren 20an.

ERRAUSKETEN KONTRAKO
PLATAFORMEN
KOORDINADORAK ▶ AMASA-
VILLABONA



www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitze eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorian agurrak...

XAKEA ▶

Jokin Mendia, bigarren Añorgan

Aimar eta Danel Intxaurren hirugarren eta laugarren sailkatu ziren

I. ETXEBESTE

Joan den larunbatean, Karmen jaietako egitarauaren barruan, gaztetxoentzako xake txapelketa jokatu zuten Gipuzkoako makina bat gaztek Añorgan. Banakako txapelketa izan zen: xake azkarrera, hain zuzen ere. Tolosatik hiru ordezkari joan ziren bertan parte hartzera, eta Tolosako Xake Elkarteko arduradunek jakitera eman dutenez, «emaitza bikainekin» itzuli ziren hirurak ere etxera. Izan

ere, Jokin Mendia bigarren izan zen txapelketan, eta Aimar eta Danel Intxaurren hirugarren eta laugarren sailkatu ziren, hurrenez hurren.

Igandean, berriz, helduen txanda izan zen. Taldeka jardun zuten helduek txapelketan, eta «horretan ere emaitza ezin hobea lortu genuen», esan dute Tolosako eta Ibarra ke elkarteko ordezkariak, bigarren bukatu zuelako Tolosako eta Ibarra ke elkar teen taldeak. Lehia estua izan zuten

eskualdeko xake jokalariek bai gaztetxo en bai helduen txapelketan, eta beste behin erakutsi dute maila altuko jokalariek direla.

Helduen txapelketa aurtengo Euskadiko Txapelketako irabazleek irabazi zuten azkenean: Errenteria-Oreretako Fomento-Beraun Bera taldekoek. Tolosako eta Ibarra ke jokalariek denboraldi bikaina ari dira egiten; herria eta kanpoan, txapelketa asko irabazi dituzte honezkerok.



Denboraldi bikaina ari dira egiten xake jokalariek aurtengoan. HITZA

UDALA ▶

Lanerako autoa behar dutenei parkimetroa jarriko die Udalak

Zentimoek arazoak ematen dituztelako, tarifa berriak izango dira TAO gunetan

IRATXE ETXEBESTE

Zentro Gerontologikoaren inguruko mozio bateratua onartu zuten herenegun EAJ, EA, IU-EB eta PSE-EE alderdi politiko-etako ordezkariak Tolosako udaletxean egin zuten udalbatzarrean. Tolosako adineko pertsonentzako dauden zerbitzuen hondatzearekin «larrituta eta kezkatuta» daudela zioen idatzia aurkeztu zuten Tolosako Zentro Gerontologikoko langileek Udalean, eta horren aurrean, «eta adineko pertsonen ongizateaz arduraturik», udalbatzarrek bi eskaera egin zizkion Gipuzkoako Foru Aldundiari: bat, Tolosako adineko pertsonen «gure herria bertan bermatzea zerbitzu asistentzialak, egoitza arlokoak barne, eta, badagokio, Zentro Gerontologikoan sartzeko bidea irekitzea», eta bi, zerbitzuaren egungo kalitatea bermatzea, eta, horretarako, «egoki diren bitartekoz eta giza baliabidez hornitzea».

TAO sistema ere izan zuten hizpide osoko bilkuran. TAO-guna berdeko tarifek erabilizaleei hainbat arazo sortzen dizkietela zioten udal ordezkariak. «Tarifek zentimoak dituzte, izan ere, eta, bestetik, ezarrita dagoen diru kopuru zehatz huraxe sartu behar da parkimetroan». Hori horrela, tarifak aldatzea onartu zuten udalbatzarrek atzo, eta lehen egun er-

diz 1,80 euro ordaindu behar baziren, hemendik aurrera 1,50 euro ordaindu beharko dute herritarrek TAO-gune berdeetan aparkatzeagatik. Egun osorako tarifa, berriz, 3 euro izango da; lehen baino 30 zentimo gutxiago.

Ildo beretik, akordioa egin du Tolosako Udalak lanerako autoa erabiltzea ezinbesteko duten dendari eta enpresek. Araututako aparkaleku guneen erabilera ordaintzeko banakako parkimetroa ezartzea

onartu du udalbatzarrek ahoz bategi, eta, hortaz, Tolosan kokatutako merkataritza, industri eta zerbitzu establezimenduek, enpresa eta langile autonomoek eta Tolosako helbidea duten ibilgailuen jabeek parkimetro bat lortu ahal izango dute ibilgailu bakoitzeko. «Indarrean dagoen aldiako Ordenantza fiskalak arautzen duen salneurri publiko ordaindu beharko dute eta parkimetro guztiek ibilgailuaren matrikula eraman beharko dute, biak

identifikatzeko aukera emango duen inpresio sistema ageri baten bidez».

Banakako parkimetroa alokairuan emango zaie eskatzaileei, eta alde zuzenetik 170 euro ordaindu beharko dira. Kargatxartelak 10 euro balio du eta txartelaren karga bakoitza 30 eurokoa izango da. Salneurria bera izango da banakako parkimetroa dutentzat TAO gune urdin, berde eta marroiatarako: 0,005 euro minutuko.

Banakako parkimetroa jaso ahal izateko irizpideak eta erabilera arauak onartu zituzten atzo udal ordezkariak; eskaerazaleek udaletxean jasoko dituzte horren inguruko argibideak eta xehetasunak.

HITZAri diru laguntza

Kreditu aldaketarako proposamenak jorratu zituzten, bestalde, atzoko udalbatzan. Euskara arloan Udalak urte honetan emango dituen diru laguntzak onartu zituzten, besteak beste. Galtzaundi aldizkariri 26.020 euro emango dizkio, Txolarre irratiari 5.000 eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK 40.000 euro jasoko ditu. Ikastetxeetan eta enpresetan euskararen erabilerean inguruan egiten diren planak ere diruz lagunduko ditu Tolosako Udalak, eta, era berean, euskara bultzatzen duten web orrialdeek ere jasoko dute diru laguntza.

PALETA ▶

Gaur jokatuko dira txapelketako finalerdiak

Tolosako CFK antolatutako paleta txapelketan, gaur jokatuko dira finalerdiak Berazubi-ko frontoian 19:00etan. Lehendik sailkatutako bikoteak Zabaleta-Urdanpilleta, Otermin-Goitia eta Apeztegia-Maiza ziren. Erredakzioa ixterakoan ari ziren jokatzen finalerdietarako 4. bikotea erabakitzeko kanporaketak.

MERKEALDIA ▶

Merkealdia iragartzeko kartelak lortzeko

Merkealdia dela eta Tolosako Udalak gogorarazi nahi die Tolosako dendariak Tolosako hiri komertziala kanpainaren baitan egindako Merkealdia iragartzeko duen kartela eskuratu ahal izango dutela Tolosako Udaleko Garapen Ekonomiko, Turismo eta Enplegu departamentuan (3. solairua, 3.3. atea).

JUBILATUAK ▶

Laredora bidaia antolatu du Harizpe elkarteak

Laredora bidaia antolatu du Harizpe elkarteak jubilatuen eta pentsiodunentzat abuztuaren 27rako, eta izen-ematea zabalik da abuztuaren 19a arte (egoitzara jo). Bazkideek 27 euro ordaindu behar dute, eta gainerakoek 30.

KREDITU ALDAKETAK EUSKARAN ▶

| Azalpena | Hasierakoa | Aldaketa | Amaierakoa |
|----------------------------------|----------------|----------------|----------------|
| Jarduerak | 20.000 | -10.500 | 9.950 |
| Publizitatea | 3.000 | -750 | 2.250 |
| Merkataritza | 9.500 | -9.000 | 500 |
| Erabilera neurketa ikastetxeetan | 0,00 | 5.300 | 5.300 |
| Besterik | 7.500 | -5.600 | 1.900 |
| Lan teknikoak | 9.000 | 10.500 | 19.500 |
| Itzulpenak | 9.000 | 5.000 | 14.000 |
| Bekaduna. Etorikinen plana | 0,00 | 3.800 | 3.800 |
| Kirol liburuaren itzulpena | 0,00 | 1.700 | 1.700 |
| Dirulaguntzak | 162.750 | 16.250 | 179.000 |
| Ikastetxeetako erabilera planak | | | 54.000 |
| Toponimia | | | 18.300 |
| Errotulazioa | | | 1.430 |
| Ikastolen festak | | | 6.000 |
| Web orriak | | | 6.000 |
| Kontseilua | | | 6.000 |
| Enpresetako erabilera plana | | | 17.250 |
| Galtzaundi | | | 26.020 |
| Txolarre | | | 5.000 |
| Hitza | | | 40.000 |
| Kontratuak. Euskaltegia | 33.000 | 19.000 | 52.000 |
| Guztira | 224.750 | 35.700 | 260.450 |

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaldea. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Tolosa.
 ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
 ▶ San Esteban: 00 68 00
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona-Aiztondo.
 Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
 ▶ Taxia: 67 04 20
 ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Olarreaga J. Martin J.
 Iraola, 10 (Tolosa). 943 672438.
 Gimeno, Elbarren, 52, (Leitza).
 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_publici@tolosaldeko
 hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 -
 687 41 00 33.
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
 villabona_aiztondo@tolosaldeko
 hitza.info
Anoetaldea. 687 41 00 22
 anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
 ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzaldeko. 687 41 01 18.
 leitzaldeko@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Renault 19, 16 V. Egoera
 onean. Tlf.: 618 25 49 60.
Altzariak. Jangelako altzariak
 salgai. Egur tailatua. 626
 847626.

LAN ESKAINTZA

Taberna. Tolosaldeko taberna
 batean lan egiteko neska bat
 behar dugu. P.K. 171, Villabona.
Alegian. Emakume bat behar da
 etxeko lanak egiteko Alegian.
 Ordutegia 10:30etik 14:30era.
 Tlf.: 943 65 30 34 (deitu
 arratsaldetan).

GALDUTAKOAK

Katua. Katua galdu da Beotibar
 kale inguruan. Zintzarria
 darama. Aho ondoan orban
 beltza dauka. 943 65 00 46.

IRURA ▶ GIZARTEA



Herriko frontoi berrian jende ugari bildu zen asteburu guztian zehar. G. AZKUE

GARAZI AZKUE

I rurako II. Garagardo Azoka izan zen orain bi aste, hausnarketarako denbora hartu ostean balorazioa egiteko unea iritsi da. Garagardo festa honetan bildutako dirua herriko ikastola berria egiteko erabiliko dute.

Azoka zer nola joan den jakiteko Marimi Ugalde Irurako alkatea, Josune Aiestaran Irurako Ikastolako zuzendaria eta Elixabete Etxeberria ikastola-ko lehendakaria bildu dira.

Asteburu guztian zehar jende asko ibili zela aipatu dute arduradunek, jaz baino gehiago. Hala ere, egun bakoitzak bere protagonista izan zuen, «ostiralean gazte jendea ibili zen azokan; garagardoa ere gainerako egunetan baino gehiago edan zuten ostiralean. Gu ere harrituta gelditu ginen horrekin». Larunbatean, berriaz, familiaren eguna izan zen orokorrean, gurasoak haurrekin gerturatu ziren. Egun horretan janariarekin izan zuten lan gehiago. Eta igandean, gazteak zein helduak ibili ziren azokan.

Baina mota honetako festa antolatzeak lan ugari eskatzen du, eta horretan herriko jendeak berebiziko erantzuna eman zuela esatean bat datoz Ugalde, Etxeberria eta Aiestaran. «Dirua ikastolarako izanda ere, ikastolan umerik ez duen jendea ere bertan egon zen lanean, asko inplikatu da Irura azoka honetan», zioen Elixabete Etxeberriak, Irurako ikastolako lehendakariak. «Kanpoko jendea eskertu beharko diogu etorri izana, baina azokaren helburua ikusita bereziki ukitu ditu herrikoak», aipatu du Josune Aiestaranek, ikastolako zuzendaria; «herriko jendea-

Garagardoari esker, Ikastola berria abian

Irurako II. Garagardo Azokak arrakasta itzela izan du, «mundiala izan da»



Ugalde, Etxeberria eta Aiestaran, Irurako ikastolaren atarian. G. AZKUE

gati ez balitz ezin izango genuen aurrera atera, gurasoak, irakasleak, ikasleak, elkarteak... guztiak aritu dira lanean. Eta esker bereziak eman behar dizkiogu Jose Luis Olanori asko lagundu baikaitu. Mila esker guztiei», gaineratu du Aiestaranek.

Baina azoka egunetan adina lan izaten da aurrez prestatu beharrekoa. Lan horretan inguruko herrien laguntza izan dute irurarrek. «Amezketak edota Ibarrak labeak eta plantak utzi dizkigu, horie ere eskerrik eman behar dizkiogu», esan du Marimi Ugalde alkateak.

Iaz izan zen lehen Garagardo Azoka Iruran, eta urtebetean izan dute berrikuntzak egiteko beta; garrantzitsuena, beharbada, kokalekua izan da. Frontoi berria inauguratu dute azokarekin eta aldaketarekin oso gustura agertu dira arduradunak. «Bilduagoa gelditu da festa, gainera frontoia oso handia da eta 500 lagunentzat lekua izan genuen bertan. Aurrez lan asko egin genuen baina azkenean oso eroso egon gara bertan», diote.

Ikastola berria

Azokan irabazitako diruarekin ikastola berria egingo dute herriari. «Herriaren hazkundea- rekin lotuta, txikia gelditu zaigu ikastola», dio ikastolako zuzendaria. Ikastola berria Udalak eskaintako lursailen egingo dute, trinketearen atzean. Helburua LH osoa jartzea da. «Leku aproposa da hori ikastola berriarentzat, 8.000 metro karratu inguruko saila dugu eta kirol azpiegiturak inguruan izango ditugu», azaldu du Josune Aiestaranek. Arkitektoarekin eta proiektuarekin aste honetan bertan hasiko dira lanean, «Udalaren eta ikastetxearen artean emango dugu proiektua, eta ahal bezain azkar hasi behar dugu lanean», gaineratu du Elixabete Etxeberria lehendakariak.

Festa honek indarrak eman dizkie aurrera egiteko ikastolako arduradunak. «Honek asko animatu gaitu, San Migueletan ere txosna jarriko dugu eta urtean zehar gogor egin beharko dugu lan ikastola berrirako, dirua handik edo hemendik atera behar dugu», azaldu du Josune Aiestaranek.

Orohar oso gustura daude emaitzarekin, «mundiala izan da. Oraindik ez dugu ezer negatiborik ikusi; eta positiboen, lan egiteko unean jendearen erantzuna izan da», laburbildu dute.

Hurrengo urtean, uztailaren lehen asteburuan izango da Irurako III. Garagardo Azoka.

► SEGA

Gipuzkoako Sega Txapelketako finala Larraitzen izango da igandean; datorren igandean, berriz, abuztuaren 1ean, Euskadiko finala jokatu da. Bi finaletan izateko txartela eskuratu dute Jesus Mari Ormaetxeak eta Andoni Goikoetxeak, eskualdeko segalariek OLAIA ESKITXABEL

JESUS MARI ORMAETXEA 'URKI' ► SEGALARIA (ORENDAIN)

Euskadiko txapeldun titulua izan arren, aurtur txapela lortzea «garesti» dagoela zehaztu du Jesus Mari Ormaetxea *Urki*, Orendaingo segalaria. Maiatzaz geroztik Gipuzkoako eta eta Euskadiko txapelketetarako prestatzen aritu da; entrenamenduen fruitua ikusi du bietan finean izatea lortu baitu. Hurrengo saioetan zortea dagoen ikusi behar.

Euskadiko segalarien txapela berrito ere buruan janzteko aukera gertuago dago. Erraza izan al da finelera iritsi bitarteko bidea?

Lantz herrian pasa den igandean izandako kanporaketan ondo ibili nintzen, 1.667 kilo bildu nituen; hala ere, horrek ez du esan nahi finean txapela lortuko dudarik. Lan asko egin behar da Euskadiko txapela berrito ere buruan izateko; garesti dago, gero, Euskadiko txapeldun titulua.

Baina esperantza ez duzu galdu, ezta?

Euskadiko Txapelketan bost aldiz hartu dut parte; iaz, txapeldun izan nintzen. Eta, aurtur ere, irabazteko esperantza mantentzen dut. Euskadiko lau

«Irabazteko aukera gehiago ikusten ditut Euskadiko txapelketan Gipuzkoakoan baino»



O.ESKITXABEL

segalari hoberenak izango gara aurrez aurre eta denak irabazteko gogoz egongo gara. Ez irabazita ere, saioan papera ona eginarekin konformatzen naiz.

Euskadikoa baino lehenago Gipuzkoako finala izango da. Zein da zure aurrikuspena?

Irabazteko aukera gehiago ikusten ditut Euskadiko Txapelketan Gipuzkoakoan baino. Euskadikoan, Lantzen, belarra ugaria da eta mozteko indarra egin behar da. Fondo eta indarra behar dira. Gipuzkoakoan, berriz, belarra indar gutxiago da eta beste teknika bat behar da. Hori kontutan hartuta, Mitxelena irabazle posiblea izan daitekeela pentsatzen dut.

Ordubeteko saioan hala ere sorpresak egon daitezke.

Orain arte, ordu erdiko saioak egiteko entrenatzen aritu gara; orain, berriz, ordubeteko saioak egingo ditugu. Eta ez dugu

denbora asko izan bereziki saio horiek prestatzeko; erritmoa mantentzen jakiteaz gain, buruari gogor egiten jakin behar da.

Noiz hasi zinen txapelketetarako entrenatzen?

Maiatza aldean hasi nintzen; Orendain, Abaltzisketa, Anoeta... hemen inguruko belardietan entrenatzen dut. Hala ere, urtean zehar zaintzen naiz, mendira joanez, gimnasioan... azken finean, puntan ibiltzeko eliteko kirolariak bezainbat zaintzen gara segalaria.

Bi txapelak lortuz gero...

Gipuzkoako eta Euskadiko finala iristea garrantzitsua da; Euskadiko txapela iaz lortzeko aurtur ere tituluar eustea eskatzen du. Gipuzkoako txapelketan bigarren postua lortu dudan arren, ez dut orain arte irabazterik izan. Bi txapelak lortuz gero, oporretara lanak ondo beteta joateko moduan izango naiz. ◀

ANDONI GOIKOETXEA ► SEGALARIA (GAZTELU)

«Egun guztiak ez dira berdinak; ezin da esan zer gertatuko den igandean»

Orain dela lau urte hasi zen Andoni Goikoetxea segako txapelketan parte hartzen; Gazteluko belardietan burutzen ditu entrenamenduak. Orain, Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketako finalerako prestatzen ari da.

Euskadiko finalean sailkatzea lortu duzu. Nola joan zen kanporaketako saioa?

Bi txanda desberdin izan ziren; lehenengoan Ormaetxea eta Mitxelena sailkatu ziren. Bigarren saioan, berriz, Goenaga eta ni. 1.404,5 kilo belar moztu nituen. Lehenengo saioan kilo gehiago moztu zituzten. Belardi ona zen baina belarra oso ugaria zenez mozteko indar gehiago egin behar zen.

Lau gipuzkoar lehiatuko zarete, beraz, Euskadiko finalean. Gipuzkoan beste herrialdeetan baino gehiago egiten da segan.

Parte-hartzeari begiratu gero ere somatzen da hori; gipuzkoar segalari kopurua besteetako baino askoz altuagoa izan da.

Euskadiko Txapelketan ezetik, igande honetan Gipuzkoako finalean ere izango zara. Zer moduz ikusten duzu zure burua?

Denboraldi honetako helburua Euskadiko eta Gipuzkoako Txapelketetarako finalerako sailkatzea zen; hori lortuta, igande honetan eta hurrengoan lan txukuna eta polita egitea beste helbururik ez dut.

Iganderako favoritoak.

Kanporaketak kontutan hartuta, *Urki* eta Mitxelena dira txapela eskuratzeko favoritoak. Hala ere, kirolean egun guztiak ez dira berdinak, ezin da esan zer gertatuko den igandean. Gainera, kanporaketetarako saioak ordu erdikoak izan dira eta finaleko saioak ordubeteko iraungo dute.

Larraitzen jokatu da Gipuzkoako finala. Zer moduzko tokia iruditzen zaizu?

Larraitzen leku bikaina iruditzen zait horrelako saio bat egiteko; jende ugari biltzen da beti paraje horretan. Lantzeko belardiarekin alderatuz, Larraitzeko belarra bakarragoa, mozteko errazagoa da, gainera. Hala ere, orain nahiko lehor dago lurra.

Igandera bitarte zer egingo duzu?

Bihar [gaur], belarra moztzen saio bat egingo dut; eta bihar eta etzi, forma mantentzeko mendira joango naiz bueltatxo bat ematera. Larunbatean deskantsatzeko tartea hartuko dut, iganderako indarrak gordetzeko. ◀



HITZA

IBARRA ▶ KULTURA

109 lan jaso dira Emeterio Arrese literatur lehiaketan

Antolatzaileek aurtengo edizioaren «partaidetza zabala» nabarmendu dute

DANI GIBELALDE

Ibarrako Udalaren Euskara Zerbitzuak urtero egiten duen bezala Emeterio Arrese literatura lehiaketa jarri du abian. Aurtengoa XVI. edizioa izango da. Lehiaketa horretan Ibarren bizi diren edo ikasten duten 16 urte arteko haur eta gaztetxo guztiek parte hartu ahal izan dute. 2004 urtekoak «partaidetza handia» izan duela jakinarazi dute lehiaketako ardura-dunek.

Izan ere, lanak aurkezteko epea ekainaren 4an bukatu zen, eta orotara 109 lan jaso dituzte. Hiru maila eta bi modali-

tate izan dira orain arteko edizioetan. Lehen maila, Lehen Hezkuntzako 1., 2., eta 3. mailako ikasleek osatzen dute; bigarren maila Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailakoek eta hirugarren maila, berriz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek. Lehiaketako modalitateak prosa eta poesia dira.

Modalitate berria

Lehiaketako antolatzaileek adierazi dutenez, aurtengoa, «berrikuntza gisara talde-lanak aurkezteko proposamena egin diegu Derrigorrezko Bigarren

AURKEZTUTAKO LANAK ▶

| Maila | Mota | lan kopurua |
|----------|---------|-------------|
| 1. maila | poesian | 2 |
| 1. maila | prosan | 7 |
| 2. maila | poesian | 31 |
| 2. maila | prosan | 26 |
| 3. maila | poesian | 19 |
| 3. maila | prosan | 18 |
| 3. maila | taldeka | 6 |

Hezkuntzako ikasleei eta horrela maila horretan modalitate berria sortu dugu. Erantzuna ona izan da, lehen urtea dela kontuan hartuta. Izan ere, 6 talde-lan aurkeztu dituzte».

Orain, epaimahaikideek lan

horiek guztiak irakurri eta barloetsi behar dituzte. San Bartolome jaietarako jakingo dugu saridunak nortzuk diren eta sari-banaketa ekitaldia ere antolatuko dute «gure idazle gazte hauen lana errekonozitzeko».

IBARRA ▶

Koadrilen Egunerako txartelak salgai gaur

Sendi Ekintzan, 20:00etatik aurrera ipiniko dituzte 21 euroren truke

D. GIBELALDE

Sanbartolomeetako Koadrilen Egunean egiten den bazkarirako, zikiro jaterako, txartelak salgai jarriko dituzte gaur Sendi Ekintza elkartearen, 20:00etatik aurrera. Gaur txartelak erosterik ez duenak abuztuaren 5ean izango du horretarako aukera, ordu eta toki berean. Bestalde, gaur, 22:00etan *Los lunes al sol* filma izango da zine-kлубean, udaletxearen alboan.



77 lagun Cabarcenorako irteeran

BERROBI ▶ Joan den larunbatean herritar ugari izan ziren Cabarcenora Udalak antolatutako irteeran. Orotara 77 berrobitar izan ziren Santander-etik, Kantabriako hiriburutik 17 bat kilometroira dagoen parke natural hori bisitatzen. Giro ona izan zen nagusi irteeran parte hartu zutenen artean. HITZA

Behibis-en ikuskizuna haurrentzat

GAZTELU ▶ Haur ugari izan ziren atzo Kultur Etxean Behibis taldearen *Txakur beltz handi eta... iletsu bat* antzezkiak ikusten. Istorioari dagokionez, liburu magiko batetik Golf izeneko txakur bat ateratu zen. Protagonistak gertatu zaizkien gorabehera guztien berri eman zizkien haurrei. D. GIBELALDE

iragarki laburrak ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

Tolosa. Korreo kalean 70 m²-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera begira. Balkoiarekin. 31.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Nafarroa etorbidean 97 m²-ko etxebizitza salgai, 3 logela, bainugela, 10 m²-ko trasteleku eta garajearekin. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Lurre auzoan etxe abikia salgai; lorategia, terraza eta bimenetaz hornitua.

Polita. 76. 000.000 pza. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Kondeko Aldapan etxebizitza salgai, 90 m²-koa eta kanpoaldera begira. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Amarozen etxebizitza alokairuan. Hiru logela, kanpoaldera begira, igogailuarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Bidebietan etxebizitza salgai, egongelarekin eta sukaldearekin. Bizitzera sartzeko prest. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Leidor zinema inguruan garaje marra alokairuan. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Igaralde auzoan 120m²-ko etxebizitza salgai, lau gelakoa, egongelarekin eta jangelarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Andoain. 90 m²-ko etxebizitza, 3 logela, 2 bainugela, igogailuarekin. Pisu altua. Mandio. 669 87 19 09.

Ibarra. Julian Gaiarre kalean 3 logelako etxebizitza salgai. Bizitzera sartzeko prest. Apartekoa. 31.500.000 pza. Mandio. 669 87 19 09.

Anoeta. Eraikuntza berriko etxebizitza, 97 m²-koa, 3 logela, bainugela, trastelekuarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Berrobi. 70 m²-ko etxebizitza. Bi logela. 23.700.000 pezeta. Mandio. 669 87 19 09.

Alegia. Etxebizitza berriak bi eta hiru logelakoak. Mandio. 669 87 19 09.

Alegia. Bigarren eskuko etxebizitza salgai. 3 gela, egongela, terraza eta sukaldearekin.

Mandio. 669 87 19 09.

Amezketeta. Duplexa salgai; 70 m²-koa, eraiki berria, igogailua eta berogailuarekin. 28.000.000 pezeta. Mandio. 669 87 19 09.

Goierri. Bifamilientzako etxe abikia, eraikuntza berrikoa. Mandio. 669 87 19 09.

Ordizia. Etxe abikiak salgai. Berriak. Mandio. 669 87 19 09.

Elduain. Etxe abiki berria, 4 gelakoa eta 2 solairukoa. Mandio. 669 87 19 09.

Aia. Apartamentu bat eta pisu berri bat salgai, azken solairuko etxebizitza. Ingurune naturalean dago, eta hondartzatik 15 minutura. Bi gelako apartamentuak, eta garajea aukeran. 29.000.000 pza.

Mandio. 669 87 19 09.

Corella. Etxe abiki rustiko berriak, portxearekin, 2 gela, bainua eta sukalde hornitua. Berria, 1.000 m²-ko terrenoarekin. 13.500.000 pza. Mandio. 669 87 19 09.

LOKALAK

Tolosa. Nafarroa etorbidean 71 m²-ko lokala salgai. 669 87 19 09

Tolosa. Taberna salgai, bezeroekin; prezio interesgarrian. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. 428 m²-ko pabiloi berria, eta bikoitzarekin eta sarbide egokikoa, sailhesbidea ondoan. Mandio. 669 87 19 09.

LEITZA ▶ OBRAK



Atzo goizean, matxura konpontzen ari zireneko irudia. JAIONE ASTIBIA

Gasik gabe geratu dira Jose Deunan

Moldaketa lan batzuk egiten hasi eta gasaren tutuari urratua egin zaiolako

JAIONE ASTIBIA

Atzo goizean eragindako matxura batengatik, gasik gabe gelditu ziren Jose Deuna auzoko biztanleak, eguerditik berehala zerbitzua berreskuratu bazuten ere.

Auzo horretako etxe batean, sotoetako ormak saneatu behar zituztela eta, lurtean zanga bat irekitzen hasi eta makinak lurrazpian zegoen porlanezko zatiak kendu eta lekutzerakotan, nonbait, gasaren tutua ukitu eta urratua egin zion, gas isuria eraginez.

Ingurura berehala hedatu zen gas usaina, baita bertan lanean ari zirenen erreakzioa ere, gelditu eta gasa itxiz eta bertako zirkulazioa moztuz.

Matxura eragin zen lekuan bertan egiaztatu ahal izan zenez, zoruan, porlanez hartutako hodi baten azpian, doa gasarena, horia eta biguina dena, todounoko geruzan sartuta eta gainekaldean eta altuera nahikoan, tutu hori hor dagoela ohartarazteko baliagarri den plastiko hori bat duela. Badirudi, ordea, zati horretan behinik behin, aipatu plastiko hori horixe ez zegoela oso erraz ikus-terko moduan eta hortik sortu zela gainerakoa.

Dena den, gasaren enpresa arduradunak, nahiz han bertan lanean ari zirenak ere, tutua kondanatu eta azkar mugitu ziren eginbeharrekoetan eta eguerdirako normaltasunera itzulia zen auzoa.

LEITZA ▶

Arropean azaldu ziren autoak eraman dituzte

Arro eta Pastain artean, argindarraren transformagailua dagoeneko horretatik metro batzutura, txikitutako autoak, dozena erditik gora, azaldu ziren, egun batetik bestera, errepide bazterrean. Gertaera horrek kezka sortu zuen hainbat herritarrengan eta ardua ere bai, ez ote zen leku hori txatarria bihurtuko, lehenaz gainera. Baina, astearte goizean jada, kamioi batean hartu eta eraman egin zituzten, guztien lasaitasunerako. Badirudi, partikular batek auto hautsiak pilatuta zituela eta bere lurretan garraioko kamioirik ezin sartu zuenez, lan hori leku horretan egin duela.

LEITZA ▶

Plater tiraketa ezin eginez dabilta

Leitzako ehiztari elkarteak, orain arte bi larunbatetan antolatu du plater tiraketa saioa Baztarlako gainean eta bietan ezin burutu izan ahal dute, arrazoia ere bi alditan bera izan delarik: lainoa. Bi egunetan, goizetik eguraldi garbia izanagatik ere, biak hala bietan arratsalderako lainoa sartu du mendi muinoan, itxi-itxia gainera, eta ez dute tiraketan aritzerik izan.

LEITZA ▶

Exkurrabea abuztuan etorriko da

Lekuberritik Leitzara hilabetero etortzen den exkurrabea, uztaile osoan oporretan dagoenez, txanda honetan ez da etorri. Baina ohar baten bidez eman du jakitera, hurrengo hilabetean, abuztuan alegia, hilaren 5ean etorriko dela, udalaxeko bigarren solairura eta 10:00etatik 12:00etara.

LEITZA ▶ KIROLA

Sagastibeltza osabailobak ere finalean dira

Plazako Eskuz Binakako XII. Txapelketako finala hurrengo larunbatean jokatu da

J.ASTIBIA

Astearte iluntzean jokatu zen plazan, noski, txapelketa honetan gelditzen zen finalurreko pilota partidua eta Pakito eta Aimar Sagastibeltza izan ziren garaile.

Beste finalurreko partidua bezala, hau ere oso parekatua joan zen, lehia bizia izan zen, baina azkenik, Joseba Lazkano eta Noe Buldainek osatzen zuten bikotea 15 tantorekin gelditu zen, finalerako txartela Sa-

gastibeltzatarrek eskuratu zutelarik.

Beraz, orain finala jokatzea gelditzen da XII. Eskuz Binakako Txapelketa honi bukaera emateko. Hori hurrengo larunbatean izanen da, 18:00tan eta Aldaia-Olano eta bi Sagastibeltzak izanen dira protagonista. Bestalde, beste partidu bat ere jokatu da egun horretan, txapelketako 3. eta 4. lekuak erabakitzekeoa hain zuzen ere, eta bitxia bada ere, lau anaia Mariñelarenatar ariko dira.



Ixkibarren eskaut-ak daude

LEITZA ▶ Astelehenean agertu ziren Ixkibarko zelaian, hainbat auto eta tramankulurekin, eta atzo oraindik ere, kanpalekua egokitzen ari ziren. Espainiako Ciudad Realdik etorri dira, Nuestra Señora del Prado ikastetxetik, egun batzuk bertan egitera, hilaren 29 arte zehazki eta Leitzelarre ez ezik, inguruko herri eta hiriak ezagutzeko asmoz. Berrogei ume eta dozena bat begirale hauek Scout Chaminade taldekoak dira. J. ASTIBIA

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein keza, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai



Harpidedunei banatua ▶ 2004ko uztailaren 22a, osteguna ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albitur, Aiegia, Aizta, Alzo, Ametzola, Aneta, Balerano, Berasteg, Edoain, Hernalde, Ibarri, Inza, Larnai, Leizaburu, Lizartza, Orendain, Orens, Tolosa, Villabona, Zuzkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurilaritza.
Kultura Saila

Logo of Tolosa Herria Hedabideak S.L.

GAURKO
EGURALDIA



26

18

BIHARKO
EGURALDIA



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DANTZA

Tolosa. Esloveniako dantza folklorikoak, Gau Giro programaren baitan, Euskal Herria plazan 22:30ean.

DEIALDIAK

Ibarra. Sendi Ekintzaren San Bartolometako zozketako bartelak salgai dira Atarin, Zubiaurren, Danon Txokoan, Gurasoen elkarte tabernan, Arkaitz Azpin eta Txumitxan.

Tolosa. Pirinioetara, Canfranc-Panticosa ingurura, irteera antolatuta du Alpino Uzturre elkarteak. Anayet (2.559 m) eta Arriel (2.824 m) gailurrak egin daitezke. Izen-ematea: Gudari 5, beheka Tolosa edo 943 65 27 89.

Tolosa. Peñascal Fundazioak datorren ikasturterako Lanbide Hastapeneko ikastaroen matrikula epea ireki du: 16-25 urte arteko graduaturik gabeko gazteentzat; mailako prestakuntza teknikoak; graduatua lortzeko klaseak; lan mundurako irtenbidea. 943 67 61 61.

Tolosa. Guarayra musika taldearen emanaldia izango da Fronton kafetegian bihar, 23:00etan, Gau Giro programaren barruan.

Villabona. Etzi 21:00etan herriko plazan egingo den Villabonako presoena eta iheslarien aldeko afari herrikoirako bartelak salgai dira Iratzar elkartearen. Afariaren ostean omenaldia egingo zaie presoena eta iheslarien senideei bertan.

ERAKUSKETA

Altzo. Altzoko erraldoiari buruzko erakusketa: *Altzoko Erraldoia, Altzo ezaguna egin duen gizona* haur eta helduentzat. Bisita gidatuak. Sarrera doan. Informazio gehiago telefono honetan: 943 65 24 13.

ZINE-KLUBA

Ibarra. Udako zinema: filmak aire librean. Gaur, *Los lunes al sol* filma eskainiko dute, 22:00etan hasita, udalbe ondoko frontoian. Abuztuaren 12a bitarteko egitarau osoa ikusteko: www.ibarrakogaztetxea.net.

Tolosan erori da saria

TOLOSA ▶ Javier Garcia de Iturrospe eta Eva Colomok irabazi dituzte Bonka kafe etxeko sariak; 6.000 euro, auto berria eta Kenyarako bidai



Javier Garcia de Iturrospe eta Eva Colomo, Tolosako Rondilla kalean, dagozkien sariekin. HITZA

IÑIGO ASENSIO

Tolosan erori dela, eta ONCEko zozketa ez delabadakigu. Tolosarrak di-rela, eta adierazpena adierazpen, uda egin dutela ere badakigu. Ez da ohikoa, baina tolosar bikote honek, Javier Garcia de Iturrospe eta Eva Colomok, badu pozik egoteko arrazoirik. Bonka kafe etxeak eginiko zozketaren irabazle suertatu dira tolosar hauek; horri esker Volkswagen Golf autoa, Kenya-rako bidai eta milioi bat pezeta —6.000 euro— irabazi dituzte.

Egunero kontsumitzen ditugun marke eskaintzen dituzten sarietako dugun sinesgarritasun eza alde batera utzi beharko dugula dirudi. «hau ez zaio inori tokatuko» moduko aurreiritziak, gure eguneroko bizitzatik desagerrarazi beharko ditugula. Bestalde, baliteke gehienok eskaintza hauen aurrean dugun jarrera berdin berdin mantentzea, baina dagokionari dagokiona; saria edozeinen gogoeta pizteko modukoa da. Javier eta Eva, auto berriarekin joango dira hondartzara aurtengo udan eta urrian hegazkina hartuko dute Kenya bidean.

ZORION AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko ezteiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



ZORIONAK, MARIJO

Txanogorribu, nora zoaz? Artziarri bazkari goxoa eramatera, akaso? Muxu potolo bat. ?????

Opari gehiago aukeran

Sari bikainak lortu dituzte, baina ez ziren aukeran zituzten bakarrak. «New York-era, Venezia-ra, Kenya-ra, Niagarako ur-jauzetara, Buenos Aires-era edota urruneko senide bat bisitatzea joateko aukera genuen. Nik aspalditik safari bat egiteko gogoia nuen, eta horregatik hautatu dugu Kenya», aipatu dio Eva Colomok HITZARI. Hauetaz gain, itsas-bidai bat, 6.000 euro eta autoa zituzten aukeran. Jabierrek, autoa aldatzeko aukera paregabea ikusi du eta dirua, bidaiari zehar beharko dutelakoan hartu dute. Berak onartu zion atzo HITZARI ez duela zozketa hauetan parte hartzeko ohiturarik: «Ez naiz zozketa hauek gustuko dituen horietakoa, baina telefono dei bat besterik ez nuen egin behar, eta badaezpada, deitu egin nuen».